

Ihauteriak beren gizartean: sei irakurketa

Xabier Itzaina

(CNRS-Centre Emile Durkheim, Sciences Po Bordeaux)

Ihauteriez egin daitezkeen irakurketa desberdinen arabera moldatua da hitzaldi hau¹. Mamian sartu baino lehen, oroitaraz dezagun, ikerketa mailan, Ipar Euskal Herrian berean ihauteriak aspaldian aztertuak izan direla. Hiru ikertzaile belaunaldi hauteman ditzakegu bederen².

Lehena XIX-XX. mendeetako eruditoena izan da. XIX. mende erditsutan jada, Badé, Chaho, Francisque Michel eta bertze bakar batzuek, Lapurdi, Baxenabarre eta oroz gainetik Xiberoko ihauteriez utzi zituzten lekukotasunak. Baina XX. mende hastapenean ziren lehen funtsezko ikerketak hasi. Georges Hérelle, orduan Baionako lizeoan irakasle zenak, maskarada, tobera, tobera mustra, astolaster eta oroz gainetik pastoralak aztertu zituen. XIX. mende hondar eta XX. mende hastapenean ziren ere Eskual Herrira hurbildu hainbat etnologo ingeles, beren kolonietan bezala Pirinioetara zoazinak exotismo bila: W. Webster, Janet Blunt, P. J. Ormond, Rodney Gallop eta oroz gainetik Violet Alford. Ingeles folklorista honek Pirinio guziak kurritu zituen XX. mende hastapenean, ordu arte bereizirik zeuzkaten sinesmen eta erritualen arteko loturak azalduz, bai Pirinioen bi punten artean, bai Euskal kaxkarot eta Ingalaterrako *morris dancers*-en artean (Alford 2004). Erritoaren erran-nahiari dagokionez, Alford James G. Frazer-engandik hurbil zen, irakurketa naturalista eta magikoei premia emanez. Tokiko ikertzaile zenbait ere, Louis Dassance bezala Uztaritzen, edo Sauveur Harruguet Garazin ihauteriez arizan ziren

¹ Artikulu hau Ikas-en kontu Uztaritzen 2014ko otsailaren 5ean eman hitzaldian oinarritua da.

² Errepaso osatuago batentzat, ikus (Itzaina 2009).

solasean (Dassance 1927; Harruguet 1927, 1936). Egia erran, interes eskas hori gisa batez ihauteriaren osasunaren seinale zen. Normaltasun osoz bizi zirelako seinale. Ohiduraren ahultzeak zituen arrangura berriak sortuko. Bi gerlen artean Aita Donostiak dantza zenbait bildu zituen, baina kantua zuen bere arrangura nagusia eta ez zuen, adibidez, Lapurdin Baztanen bezalako dantzen bilketa sistematikorik egin³.

1960-1970 urteetan hasi zen belaunaldi berri bat dantzari buruz ikerketa sistematikoa egiten, eta dantza jauzieri buruz bereziki. Aita Miguel Angel Sagasetak, orduan Luzaiden bikario zenak, 1977an argitaratu zituen bere *Luzaideko dantzak*, izenak ez dioten bezala, Baxenabarre osoan, bai eta Xiberoan eta Lapurdin eraman inkesta zehatzaren emaitza zena. Bertze izen nagusia Jean-Michel Guilcher-ena izan zen. Guilcher II. mundu gerla denboran hasi zen Pirinio erdietan dantzen miatzen. Gero tesia egin zuen Britainiako dantzez, eta 1960 urteetan hurbildu zen Euskal Herrira, Parisen ikasketetan ezagutu arbonar adiskide baten medioz. Luhuson hasi zituen lehen ikerketak, ihauteri, Besta berri eta toberei buruz, eta emeki-emeki Ipar Euskal Herri eta Biarno osoak kurritu zituen. Baztanen ere ibili zen mutil dantza ikasten Maurizio Elizalde txistulariarekin, bai eta Mariano Izeta Elizondoko euskaltzalearekin. Guilcher-ek ikasi zituen, bertzeak bertze, Xiberoko dantzak, maisu handienekin. Bilketa sistematikoan arizan zen, izadi-zientzien ikerbideak erabiliz. Interpretazio mailan, Guilcher-ek dantzaren historia zuen lantzen, eta ez baitezpada irakurketa magiko-erritualista. Adibidez, Xiberoko maskaradak Henrike IV.ren garaian gorteetan emaiten zituen maskaradekilako ahaidetasuna azpimarratu zuen, hipotesi bezala. Ez zuen baitezpada lantzen maskaradaren irakurketa sinbolikoa primaderaren berpizte bezala. Guilcher-en ekarpen nagusia izan zen oroz gainetik dantzaren historizitatearen azpimarratzea, baita *arizaleek* bestari emaiten zioten erran-nahiaren azpimarratzea.

³ Adibidez, Pili Tafernaberry Bidarteko xirribikariari hartu zizkion dantza doinu zenbait, baina ez dantza jauzien erreperitorio osoa.

1970-1980 urteetarik aitzina tokiko gazteak lotu ziren berak ikerketari, helburu praktiko batekin: gauzen arra-abiaraztea. Ohidurak galtzear zoatzen Lapurdin, ikerketa gose hori sekula baino azkarrago zen. Lapurtarrak elkarteak kari horretara sortu zuten Baionan, eta Betti Betelu, Jean Espilondo, Claude Iruretagoiena, Thierry Truffaut, Henri Duhau eta bertze zenbait hasi ziren Lapurdiko herrien kurritzen maska, dantza eta soinu oroitzen bila. Bertzeak bertze, Bidarteko Pili Tafernaberry xirribikari eta dantza maisuarengandik ikasiak plazaratu zituzten. Ihauteriak eta dantza jauziak ziren belaunaldi berri horren interes nagusia. Baxenabarre eta Xiberoan ere senti zen ohidura egarri berri hori, baina oinarri sendoago batzuekin, gauza anitz oraindik bizirik zirelaketz, edo intxendipean brasa oraindik beroa zelaketz.

Gaur egun ikerketak aitzina segitzen du. Aita Sagasetak bere Luzaidoko dantzen edizio berri eta emendatu bat argitaratu zuen, Baztango eta Biarnoko hainbat datu txertatuz aitzineko obrari (Sagaset 2011). T. Truffaut-k Lapurdiko herri bakoitzean ihauteriez bildu datu xeheak argitaratu zituen (Truffaut 2005; 2011). Antton Lukuk (Luku 2014) proposatu zuen libertimendu eta maskaraden irakurketa berri bat. Kepa Fernandez de Larrinoak ohidura dantzatuak aztertu zituen generoaren ikuspegitik (Fdez. De Larrinoa 1997). Ikerbideak anitzak dira, eta metodoak ere. Gero eta gehiago begiratzen da ohidurek nola iraun duten, baina baita ere nola aldatu, galdu edo berreskuratuak izan diren (Truffaut 2005). Aitzina segitzeko, etnografiak gain, historialarien tresnak behar genituzke agian gehiago baliatu. Ahozko memorian biltzen ahal zirenak guti edo aski bilduak izan dira. Gauzak nola iragaten ziren XIX. mende hondarraz geroztik badakigu. Baina lehenago? Metodo arazo bat bada gauditu beharra: nola aztertu bestaren historia artxibo eta lekukotasun idatzien bidez? Zailtasuna handiago da ihauterien kasuan, jakinez adibidez garai bateko prentsa katolikoak, bereziki, ez zituela neguko ospakizun horiek gehienetan aipatu nahi ere. Errepublikarren prentsan aipamen gehiago bada, baina gauza guti. Halere, artxibo judizial, herrietako eta suprefeturaren paperetan hauteman daiteke aipamen

zerbait, izatekotz toberez ihauteriez baino gehiago (Itçaina 2012a; 2012c). Hasteko, historiaren erabilpena tresna ona da besta hori beti aldatuz joan dela ulertzeko, eta ohiduren betikotasunaren ideia bere neurrian axikitzeko.

Testuinguru horretan, hitzaldi honen helburua mugatua da. Nahi nuke erakutsi, soka-tiraren irudia erabiliz, ihauterien erran-nahia sei tentsio edo tirabiren artean eraiki dela eta eraikitzen dela oraindik neurri batean: barne/kanpo; hartu/eman; jan eta edan/barur eta mehe; basa/zibilizatua; ezkonduak/ezkontzekoak; boterea zirikatu/finkatu; ohidurari jarraiki/uko egin/aldatu. Sei tentsio horien inguruan antolatuko dut solasa. Adibideak gehien bat Lapurdin hartuko ditut, probintzia horretan dudalakotz gehienik miatua, eta Xiberoko eta Baxenabarreko usaiak orohar hobeki ezagutuak eta barnatuak izanak direlakotz gorago aipatu lanei esker.

1. Barne/kanpo : mugak markatu

Ihauteri garaia *mugatze* garaia da. Herriko, kartierreko eta etxeen arteko mugak berriz markatzen dira urte hastapenean, eta ziklo berri bat finkatzen. Mugatze lan horrek berak bi aurpegi dauzka.

Alde batetik, espazio desberdinen arteko lotura azkartzen da. Ihauteria *gurutzatze* garaia da. Xiberoko maskarada herrien arteko harremanen erregulatzeko molde bat zen, eta garai batez gazteriak herritik kanpo ezagutzen egiteko moldea ere. Neguko maskarada guziak biltzen ziren Atharratzen Lerdoz (ortzegun gizen edo Orokunde⁴). Lau maskarada gertatzen ahal ziren betan. Dantza eta kantu desafio toki bilakatzen zen plaza laukia. Izuran, Haustez egiten zen feria, eta dantza jauziak entxeretan ezartzen ziren Oztibarre eta auzo ibarretako herrien artean⁵. Ezpeletan feria neguan egiten zen ere. Akamarreko gazteria, astelehen ihautez Labastide-Villefranchera joaten zen beztiturik, eta Haustez

⁴ Herria, 17/01/1946.

⁵ Jakes Cazaubon-i entzuna.

Peyrehoraderaino. Uztaritze eta Ezpeletako kaxkarotak (gaur egun oraindik), garai batez Arrangoitzekoak (1929an), Hazpandarrak eta Donibane Lohitzuneko kaxkarotak eske ibiltzen ziren Baionan ihauteriz. Makearrak herritik ateratzen ziren franko usu XX. mende hastapenean, eta eske ibiltzen Hazparne, Itsasu, Kanbo eta Uztaritzen ere, batzuetan tokian tokiko kaxkarotekin. Eske horiek ez ziren baitezpada beti ontsa pasatzen, jakinez lehia ekonomiko bat bazela kaxkarot tropen artean, bereziki kostaldean eske ibiltzeko tenorean⁶.



Lapurta kaxkarot talde bat Baionan mende hastapenean (X. Itzaina)

Ber-denboran, mugak *non* diren oroitarazten zen ere ihauterietan : nor den barne eta nor den kanpo. Jakina den bezala, espazioen arteko lotura eta muga finkatzea argienik markatzen da Xiberoko maskaradetan, bai goizeko barrikadetan, bai arratsaldeko bralían. Soka dantzaren bariante

⁶ Sustut jakinez herri batzuetan, Uztaritzen bezala 1960 urteetaraino, ihauteriz bildu dirua dantzarien artean partekatzen zela, parropiaren elkartea ez baitezpada ados izanik ere.

honetan, kanpoko beztituek bisitatua zen herriko neskak gomitatzen dituzte, denbora batez tokiko mutikoek trabaturik. Lapurdin ere bazuen bere garrantzia mugaren ideia horrek. Lapurdiko herri batzuetan, kaxkarotak karrikan bakarrik ibiltzen ziren, maskak aldiz kartierka etxez-etxe. Bertze herri batzuetan, gazteek behar zituzten etxe guziak bisitatu, bereziki basaburuetan, behar bada bazter etxeak herrian sinbolikoki arra-sartzeko gisan.

Mugak errespetatu behar ziren: 1928 urtarrilean *Eskualduna* kazetan zenbait astez iraun behar zuen eztabaida piztu zen Arbona eta Ahetzeko berriketariaren artean, Urtats bezperan Ahetzeko gazteak eske ibiliak zirelaketz Arbonan: *“Arbonan sarthuak lehenago Bochak Frantzian bezala, etchez etche bazabiltza diru galdez. Diru galdez! Eta zer? Ahetzen diru eskasetan othe dira? (...) Zer nahi dena, gure muthiko gazter afruntu bat bezala iduritu zaiote ikhustea Aheztar horiek gure herrian sarthuak nihoren baimenik gabe (...) guzien gainetik nahi dugu gure etchean nausi gelditu”*⁷. Aheztarrena ikusita, arbonar gazteek deliberatu zuten orduan haiek ere eske ibiltzea: kleron, atabalari, eta koblakaria harturik, dozena bat mutiko abiatu ziren, *“khantu pollitenak begiratzen zituzten herriko bi buruzagientzat... jaun mera eta jaun erretora (...) Etche guzietan ukan dute emaitza pollita”* (ibid). Ahetzeko berriketariaren errepostua : *“gure falta othe da gure heinerat heltzen ahal ez badira auzo horiek? (...) eta gero gure mutiko hautarik joan zaizkotela, ez diru eskez, jauna, ez (Yainkoari esker ez gare hortan oraino) bainan urthe onaren airoski desiratzera?”* (*Eskualduna*, 1928.I.13). Arbonakoak eske ibili zirela, eta *“Arbonarrak ohartu zirenean, hemengoak pasatu ondoan, bertze koblariak herri auzokoak zirela, ez baizioten athea zabaldu nahi eta orduan aditu dituzte anhitzek trufak, eskarnioak eta ere izen goitiak”* (*Eskualduna*, 20.01.1928)⁸.

⁷ « Arbona », *Eskualduna*, 6 janvier 1928.

⁸ Bertsoak ere egin zituzten istorio horretaz (*Eskualduna*, 9.III.1928). Senperen urte berean, urte ona desiratzen zuen gazteriak etxez-etxe ibiliz (*Eskualduna*, 1928.I.6)

Mugen markatze errituala ez da euskal berezitasun bat, ezta ihauteri garaikoa. Oxford hirian Salbatorez ospatzen da *Beating the bounds* (mugak jo) errituala, zeinetan suertatu nintzen 2006an. Saint Michael at the North Gate parropian, meza (anglikano)tik landa, jendea prozesioan badoa, gurutze eta apezarekin, Erdi Aroko parropiaren mugetaraino. Mugarri bakoitz, apezak mugarria zeinatzen du, eta jendeek ziri luze batzuekin mugarria jotzen dute : “*Mark!, Mark!, Mark!*” erranez. Alabaina, hiria Erdi Aroaz geroztik hedatu da, eta mugarriak gaur egun toki bitxietan gertatzen ahal dira: *Bodleian library* liburutegian - non liburuak benedikatzen diren -, unibertsitate zokoko bizikleten aparkalekuan, non maitale gordeak benedikatzen diren, *pub* batean, non prozesioa gelditzen den garagardo zenbaiten hartzeko, eta, *last but not least*, Marks & Spencer saltegiko azpiko arropen partean.



Prozesioa abiatzen, Saint Michael at the North Gate, Oxford, 2006ko Salbatorez (X. Itzaina)



Mugak markatzen prozesio denboran, Saint Michael at the North Gate, Oxford, 2006ko Salbatorez (X. Itzaina)

Lapurdira itzuliz, kartier edo auzoaren nortasuna ere azpimarratzen zen. Uztaritzen, 1900 inguruan, kartier nagusi bakoitzak (Uztaritze, Arruntza, Hiribehere) bazuen bere kaxkarot multxoak. Arruntzakoei fama handia zuten. “Dantzari handi Arruntzako” zioen zuhur hitz batek, hain segur Hypolitte Hiriart kartierreko xirribikari eta dantza maisu garrantzitsuari esker. Arruntzara heltzean, Uztaritzeko kaxkarotek behar zituzten lehendabizik plaza-itzuliak egin Maska dantzarekin, eta gero dantzen segida osoarekin, kartierreko xaharren aitzinean. Behin ariketa burutu eta, “plaza hartua” zutela erraten zen, eta kartierrean eske ibiltzeko eskubidea erdiesten zuten. Uztaritzen, 1772ko urtarrilean, ihauteri garai betean, bi dantzari talde elkarri joka hasi ziren, eta elkar kolpatu ere, kartierren arteko lehiaren seinale (Duvigneau-Légasse 1993).

Saran, ihauteriz, kartier bakoitzak bazuen bere aldia eta bere eguna dantza kordaren "tiratzeko". Itsasun aldiz, Pesta berri eta Otabaz, Luzaiden Santiagotan, herriko bestetan. Izuran, Iraultza aitzin, Oztibarre ibarreko biltzar egunean, ibarreko herri bakoitzeko ordezkari batek hasten zuen dantza, ordena finko batean. Eskubide hori markatzen zuten herrien arteko orekaren atxikitzeko, baita Hirugarren estatuak nobleziaren parean zuen lekuaren azpimarratzeko. 1698an gainera, Uhartiriko jaun nobleak nahi izan zuen dantza bere gizon bati hasarazi; ezpatak atera zituzten, eta afera auziraino joan zen (Goyhenetche 1996).

1766ko otsailean Erregearen ordezkari zen Hospital-eko kondeak Lapurdiko hainbat auzapezi idatzi zien jakinarazteko, erretoreek ez bezala, xirula-ttuntun soinuz emaiten ziren dantzak baimentzen zituela, baina kartier bakoitzak bere aldia izatekotan, tokiko usaiaren arabera. Hona adibidez makear, itsasuar eta donibane-lohitzundar auzapez eta juraduek errezebitu zuten eskutitza:

« Bayonne, le 6 février 1766. Je suis instruit, Messieurs, que les danses en place publique au son du tambourin ont été d'usage de tout temps dans votre pais et qu'on avait fait courir le bruit que je voulais defendre cette sorte s'amusement ; bien loin que je desaprouve cette récréation si innocente par elle-même. Je pense au contraire qu'il convient que ces danses soient continuées pour amuser vos habitans et les empecher de tomber dans l'ennuy et l'oisiveté cause de tout vice, pourvu toutefois que le plaisir soit pris avec decence qu'il convient qu'il cesse surtout pendant divers offices divins et dans les tems de recueil et de penitence, qu'il ne passe point l'heure de la retraite, qu'il n'y ait point dispute sur la preaseance de la danse, comme il est arrivé quelques fois et que chaque quartier fasse à son tour et suivant l'usage de la Parroisse ; vous feres part de mon intention à cet égard à vos habitans, assemblée tenante, vous tindrés la main à l'exécution de ce que je vous prescris cy dessus pour le bon ordre et l'edification, et vous me rendrés compte si l'on contrevient afin que je donne des ordres au Prevot pour verifier en faits et punir les contrevenants ainsi qu'ils le meritent.

Je suis, Messieurs, votre affectionné serviteur

Le Cte de L'Hospital. » (Makeako herri artxiboa)

Kartierren aldizkatzeak bazukeen bere garrantzia. Kanbon, 1727eko Mendekosteko bestetan, ekainean, kartier desberdinetako dantzariak joka arizan ziren makilekin, Puttoreneko premua gorputz utzi arte (Duvigneau-Légasse 1993). Ondorioz dantza publikoak debekatu zituzten. Hazparnen, 1804an, auzapezak ihauterietako kaxkaroten maskaradak baimendu zituen, baina kontrolpean atxikiz:

« Le maire d'Hasparren instruit que la jeunesse réunie des différents quartiers se propose dans les derniers jours de carnaval de faire des mascarades, d'exécuter des danses connues sous le nom de Cascarotac, enfin de donner au public des farces considérant que les réunions que nécessitent ces sortes de divertissements compromettent souvent l'ordre public si elles ne sont pas surveillées par la police et garanties par un nombre de citoyens solvables et paisibles arrête : art 1^{er} : tout exercice public, comme danse, mascarade, cavalcade et autres farces publiques sont prohibées jusqu'à ce que les auteurs en ayant présenté le projet à la mairie et obtenu le visa, à peine contre les contrevenants d'être poursuivis et jugés comme réfractaires aux ordonnances de police (...) art.3 : tout rassemblement sera dissous à 7h. du soir et les cabarets seront fermés à la même heure, sous peine de poursuite. » (Hazparneko herri artxiboa, Truffaut 2005 : 185)



Hazparneko kaxkarotak 1920 urteetan (X. Itzaina)

2. Hartu / eman

“ballare è un rendere”

Lapurdin, urtats eta garizuma artean iragaten ziren eskeak hiru gisatakoak ziren. Bata, maskena, denetan aurkitzen dena, beren eske kantuekin, xingar eta arroltzeketa zihoazenak. Bigarren mota, kaxkarot dantzariena. Izatekotz herri gotorretan ateratzen ziren, eta janariaz gain dirua ere galdegiten zuten. Batzuetan bertsularia bazeramaten berekin, Mattin Treku bezala Saran. Maskek bisaia kukutua zuten, kaxkarotek aldiz agerian. Dantzariak ahal bezain ederki apainduak ziren, eta xuriz beztu. Hirugarrenik, buhameak ibiltzen ziren etxez-etxe eske, bereziki xerri hiltze garaian.

XVII. mendean, Gixuneko kondeak Colbert ministroari idatzi zion Lapurdiko kostaldean ihauteriak eta dantzak zuten garrantzia azpimarratuz, bai eta herrien arteko lehia seinalatuz:

"Il est impossible de faire en Pays Basque durant le Carnaval, autre chose que dancer. J'ai esté reçu avec des témoignages d'une joye indicible, qui n'a esté troublée que par une jalousie de ceux de Saint Jean de Luz pour les habitants de Siboure, parce que ceux-cy estant venus au-devant de moy avec force sonnettes, nous avons dancé ensemble, et que ceux de Saint-Jean-de-Luz n'avoient pas fait comme les autres le devoir de porter beaucoup de sonnettes"⁹

Etxez-etxe ibiltzean bada hartu-eman (harreman) bat: eske kantuak eta dantzak kausera, kruspet, matahami, xingar, lukainka edo diruaren truke. Etxea sinbolikoki herrian sartzen da urte batentzat "zerga" ttipi baten truke. Dantza eta kantu emaileak *gazteria* osatzen zuten, erran nahi baita ezkontzekoak ziren mutikoak. Kaxkarot dantzariak, ahalik eta ederrenak agertzen ziren. Uztaritzen, etxekandere eta arrebek prestatu urrezko broxa eta joiak josiak zituzten papoan. Opariaren errezebiltzaileak, eta ordainaren emaileak etxeko andere eta nagusiak dira. Etxeko bakoitzari ematen zaio hari doakion kopla. Hona, bertze anitzen artean, masken eske kantu ezagun bat, Itsasun ikasi bertsio batean:

*Agur etxeko andrea
Begia duzu xarmanta
Zure ganik nahi nuke
Xingar edo lukinka*

*Heldu gira urrundik
Gaua bidean emanik
Gaua bidean emanik eta
Ihauteriak entzunik*

*Landan eder gereta
Baxenabarren Heleta
Zerbeit merexi ginuke*

⁹ *Correspondance administrative sous le règne de Louis XIV, etc*, publ.par G.B. Dupping, t.II, Paris, Imprimerie Nationale, MDCCCLI, in 4°, p.820, cit.in Michel 1857 : 114.

Handik hunat jin eta

(ez badute emaiten)

Goazen, goazen hemendik

Hemen ez diagu xingarrik

Etxe huntako gazi kutxan

Saguak umeak egin tik



Itsasuko kaxkarotak Basaburu auzoan eske 1990 urteetan (X. Itzaina)

“Santibatek andere” kantua ere franko usu entzuten zen Lapurdin ere. Itsasun, xaharren oroitzapenetan, buhamiek zuten kantatzen. Alduden aldiz, *karatotxak* deitu dantzariak :

Santibatek andere

Aurthen bezala gerore

Santibatek igortzen gaitu xingarketa gu ere

Ez gabiltza ederrez

Ez eta ere beharrez

Kostuma zaharren uztez erreprotxu beldurrez

Tolos'eta Baiona

Jainkoak dautzut'egun ona!

Guri xingarraren emaitera, jeiki bazinte huna!

Ez dugu nahi urdia

Ez et'ere erdia,

Usaia gatik, kostuma gatik, liberako zathia

Ez dugu nahi tripotik,

Bertzian izan ez denik,

Beldurrez eta trompa gaitzazten... urdekeriaz betherik

(etxek'anderiari lausenguak)

Etxian eder gerrena

Etxek'andere lerdena

Zur'erhiko erhaztun hortaz eros niro Baiona!

Etxian eder kortzeiru

Dabiltzanian inguru

Etxe huntako etxek'andera, Parabisuan [aingeru]!

Etxian eder ohako,

Haurra sortzen deneko

Etxe huntako etxek'andera zaldiz elizarako

Zaldiz elizarako eta zilhar kadiran jarriko!

Landan eder ilharra

Haren pean belharra

Etxe huntako etxek'andera, zer emazte chilharra!

Etxian eder ferreta

Haren gainean kaneta

Etxe huntako etxek'andera, zer emazte plaxenta

(nausiari, erdi lausengu, erdi mehatxu)

Etxian eder aitzurra

Nausi bilo izurra

Kolpetto bat eman ezaguzu busti dezagun zintzurra

Kadiran zaude jarririk

Koloriak gorririk;

Guri xingarren emaitera jeiki bazinte hortik

(eskerren bihurtzea)

Eman duzu nobleki

Konpainiak ere badaki

Parabisuan sar zaitezela, hamabi aingeruekin

Hamabi aingeruekin eta zure familiarekin!

(deus ukaiten ez dutelarik)

Goazen goazen hemendik

Hemen ez dugu xingarrik

Etxe huntako gazitei kutxan saguak umiak hazten tik!

Etxian eder aihotza

Etxek'andere hortz motza

Su burdinaz hauts ditzatzula sudur eta kokotza!

(...)

Lapurdi hegoaldean *Dios te salve*-ren koplak erabiltzen zuten, eta dute beti, eske kantu bezala Urtats eta Eguberri bezperan egiten diren karrika itzulietan. Bidarraiko erreka zolan dagoen Aritzakuneko kartierrean (Baztanen kokatua), kantu hau emaiten zuten ihauterikari etxez-etxe eske ibiltzen ziren mutikoek:

« Egun ttun ttun,

Bihar ttun-ttun

Etzi ere ttun-ttun
Etxe huntan arnoa bada
Guk ez jakin zonbatna
Zonbatna den jakiteko
Edan dezagun baso bana »¹⁰

Bertze kantu hau ere entzuten zen Aritzakunen ihauterikari:

« Bat eta biga
Iñauterietan gira,
Hiru eta lau
Ni umorean gaur,
Bost, sei, zazpi
Zu ere bai naski,
Zortzi bederatzi
Bokadoan iretsi,
Hamar ta hameka
Urerat lasterka,
Hamabi hamabost
Ongi gaude aurtengoz,
Hamasei, hamazazpi
Atsoa arrunt gaizki,
Hemezortzi hemeretzi
Hil behar zauku naski,
Hogei hogeitebat
Atsoa tumbarat ! »¹¹

Hartu-emana ez da, alabaina, euskal ihauterien berezitasun bat. Lombardiako Alpesetan, Bagolino herrian ihauteri berezi bat begiratu dute gaur arte. Beztituak bi taldetan bereizten dira: dantzariak eta maskak (hemen “*vecchie*” edo “atsoak” deituak). Dantzariak jauntzi ederretan ateratzen dira, bereziki urreriaz apaindutako kapeluarekin. Igande ihautearekin haurrak dira ibiltzen eske, soinu eta dantzarekin,

¹⁰ Itsasu-Olhasur Etxeberrian ikasia 1998an, sortzez aritzakundarra den Mertxe Iriquinen eskutik.

¹¹ Mari-Cruz Oxandaboureri ikasia, 1994an Baionan, 76 urte, sortzez aritzakundarra.

astelehena eta asteartez aldiz dantzari eta maska helduak. Astelehenean, goiz-meza entzun eta, dantzariak lehen dantza erretoreari eskaintzen diote, eta honek eskaini salda eta askaritik landa, etxe-kurrida hasten dute. Ibilaldia urrea prestatu duten emazteen etxeen arabera antolatua da, hartu-eman klasikoa segituz. “*ballare è un rendere*” dio Bagolinoko erran zahar batek: dantzatzea ordaintzea da. Bagolinoko ihauteriei eskaini dion tesian, Francesca Cappelletto antropologoak erakutsi du ihauterietako ibilaldiak, bai eta dantzarien arteko harremanak¹², etxeen arteko harremanen erregulatzeko molde bat zela (Cappelletto 1995; Itçaina 2013). Emilian dagoen Benedello herrixkan aldiz, gure bolanten eite handia duten dantzariak (*lacchè* deituak) beren iraupena eta indarra zuten erakusten, ihauteriko azken egunetan gau eta egun etxez-etxe dantzatzuz (Biolchini e Borghi s.d.).

¹² Dantzariak pareka antolatuak dira, « gizona » eta « andrea », nahiz eta biak gizonak izanki, eta elkarrekin pasatzen dituzte ihauteri astelehen eta asteartea.



Bagolinoko dantzariak goiz-mezatik landa lanean 2013ko astelehen ihautez (X. Itzaina)



Bagolinoko dantzariak elurpean, 2013ko astelehen ihautez (X. Itzaina)



lacchè dantzariak Benedellon (Emilia-Romagna), 2013ko Garizuma erdiko ateraldian
(X. Itzaina)

3. Jan eta edan / barur eta mehe

Hirugarren tentsioa janariaren ingurukoa da: jan eta edan/barur eta mehe. Ihauteri garaian egiten ziren otordu handiak, gero jinen zen garizuma dorpearen menturan. Ihauterietako bestak denboraren izate ziklikoa ospatzen du: urte zaharra hiltzen da eta berria pizten, jakinik 1564 arte, urte berria apirilaren lehenean hasten zela. Itxura guzian

arabera, Carnaval hitza bera Italiatik heldu da, eta zehazkiago latinetik: *carnis levare*: haragia kendu. Giristinoek paganoengandik aspalditik hartu besta dela dirudi¹³.

Ihauteria besta garaia zen. Hainbat herritan, herriko bestak orduan ziren ospatzen, udara pasatu aitzin. Itsasun Jondoni Murtuts ospatzen zen bai urtarrilaren 21ean, bai agorrilaren 17an. Herri berean, ihaute-igande aitzineko igandea *Zaldun ihaute* deitzen zuten, eta Gibelarte auzoan egiten zen besta bat, antzara jokoarekin. Euskal Herriko herri gehienetan aldiz, igande ihaute zuten *Zaldun ihaute* deitzen. Arruntzak bere besta Ganderailuz zuen markatzen, otsailaren 2an, edo kartierreko edo Uztaritzeko kaxkaroten ateraldiarekin. Beskoitzek Jondoni Bixintxo zuen ospatzen urtarrilaren 22an. 1928an adibidez, meza nagusitik ateratzean herriko kaxkarotek eman zituzten makil dantza eta fandangoak.

1. Bestaren ezaugarri bat zen (eta da) usaian baino gehiago jatea eta edatea. Baionan ortzegun gizenek idi gizenak erakusten zituzten karrika hertsietan. Hazparnen XVIII. mendean, behin ihauterietako behi lasterrak bururatu eta, behiak hiltzen zituzten eta haragia herriko behartsuei banatzen. Ihauteria hurbiletik lotua da egutegi giristinoari. Ihauteriaren hiru azken egunetan baziren bezperak, eta plazako soinua gero hasten zen. Apezek luzaz printzipioz kondematzen zuten ihauteria, baina batzuk maltsoago ziren. 1939 arte, Haustez, Kanbo behereko kaxkarotak mezara joaten ziren

¹³ Ihauteriak, hain segur, Erromanoen garaian ospatzen ziren hiru bestetan oinarritzen da, parte bederen. *Lupercales* bestak lehendabizik: urtero otsailaren 15ean, sakrifikuak izan ziren akerren larruz bezti ziren Luperques delakoak ibiltzen ziren lasterka hirian barna jendeak eta bereziki emazteak azotatuz. Haur ukaiteko on zela sinesten zen. Lupercales-ek urte berriaren abiatzea markatzen zuten, eta mundu basatia mundu zibilizatuan sartzea sinbolizatzen zuten, desordena bizi ordenatu batean, hilen mundua bizien munduan. *Saturnales* bestak neguko solstizio inguruan ospatzen ziren. Bazkarietan etxeko nagusiak esklaboak xerbitxatzen zituen. Xerrikia jaten zen, eta geriza-itxura ttipiak ezartzen ziren dilindan etxe atarietan eta bidegurutzetan. Alegiazko errege bat zozketa bidez hautatzen zen bestaren denborarentzat. Saturnales hondarrean ospatzen ziren *Sigillaires*-etan, buztinezko itxura ttipiak, xirioak eta bixkotzak eskaintzen ziren. Kondairak dioenez, itxura ttipi horiek garai batez Pelasges-tarrek (Latium-eko aspaldiko leinu bat) egiten zituzten sakrifizio humanoak ordaidu zituzten. Mitologiako Hercules-ek zukeen Pelasges-n ondokoer galdegin gizakien orde itxura ttipi batzuk erabiltzea, eta Saturno-ren aldareak ohoratzea ez gizaki sakrifizioen bidez baina xirio batzuk piztuz.

hautsen hartzera, gero erretoreak askaria eskaintzen zien, eta ondotik ziren eske abiatzen. Arratsaldean behereko plazara heldu ziren berriz Zan Pantzarren auziarentzat. Gorago aipatu dugun Bagolinon, gaur egun gauza bertsua egiten dute astelehen ihautez. 1970 urteetan haatik, ihauterien kontra zen erretor bat zeukatela eta, harremanak zailago ziren. Urte batez, ezinbertzean, gazteriak deliberatu zuen ihauteria Garizumaren lehen aste hondarrera pusatzea. Erretorak, hori jakinik, ihauteriaren arduradunak eskomunikatu zituen eta Elizatik haizatu. Gaurko apeza aldiz ihauterizalea dutela badirudi Bagolinon.

XVIII. mendean, Mgr Daguerre, Larresoroko semenarioaren sortzaileak, nahiz eta soinulari eta "tambourin" (xirula-ttunttuna) soinularien kontra borrokatu zen bere bizi guzian, ihauterietako dantzariak onartzen zituen Larresoron, lehenik mezara 40 orenetako otoitzak¹⁴ entzutekotan, beren dantzari arropak palto luze batzuekin estaliz. Elizatik atera orduko, paltoak kendurik dantzan hasten ziren eta, Duvoisin Daguerren biografoaren arabera, gure kaxkarot martxaren arbasoa den "*morisque*"-a ematen zuten, bai eta dantza jauziak eta dantza luzea (Duvoisin 1861). Apezek ihauteriekin zeukaten harreman bikoitzak berant arte iraun zuen. 1920-1930 urteetan, bikario eta erretorek muntatzen zituzten komediak, euskaraz eta frantsesez, Lapurdiko herrietan ihauteri garaian *patronages*-en kontu, gisa batez garai horretako ahusagailuen kontrolatzeko, baita ere neskei leku baten emateko. XV. mendeko Florentzian Elizak jada gisa bereko estrategia eramaten zuen. Ihaute biharamunean hasten zen Bazko arte irauten zuen penitentzia garaia. Apezpikuak urtero argitaratzen zituen bere Garizumako manamenduak, bai janariari eta bai politikari dagokionez.

¹⁴ Ohidura liturgiko baten arabera (Italian lehenik kaputxinoen bidez XVI. mendean, Frantzian 1640etik aitzina), Sakramendu saindua herriari agerian ezartzen da 40 orenez ihauteri garaiko bekatuen barkarazteko.

Baionako apezpikuaren Garizumako manamenduak 1912an (zatiak)

1. “ (...) ezagutzaren adinerat helduak diren fededun guziek beharko dute mehe egin; eta 21 urthe betheak dituztenek mehe eta barur, non ez duten ez egiteko aski den arrazoinik.
2. 1911, urtarrilaren 12an onetsirik Aita sainduak, uzten diotegu sori haragia orori, ba eta barur egin dutenei ere, Igandetan, janthordu guziez; eta bakarrik janthordu nausiko, Astelehen, Asteart, Ortzegun eta Larumbatean, Garizumako aste guziez. Aste sainduko Asteart arte, hura barne, salbu Garthetako larumbatean. Neholere ez da haizu janthordu berean *gizen* eta *arrain* jatea. Garizumako egunetan, ez Igandetan ere bertzetan baino gehiago. Hau hola ororentzat da, barur egiterik ez dutenentzat ere; eta hola bethi, urtheiko barur egun guziez.
3. Uzten ditugu arroltzeak sori Garizuma guzian, salbu Ortzirale sainduz. Barur egin behar dutenek ez dute arroltzerik jan ahalko kolazionean.
4. Uzten ditugu sori burra, esnea eta gasna, kolazionean ere, Garizuma guzian eta urtheiko barur egun guzietan.
5. Gorago aipatu Aita Sainduaren Baimenari esker, sori uzten dugu janhari meheak urinean preparatzea urthe guzian, salbu Ortzirale sainduz, Andredena Mariako, Umia Sainduko, eta Eguerriko Bichilia egunetan.
6. Baimen berari esker, mehe egitetik dispensatuak direnek behar dute jakin, ongi eginen dutela, karitatez, ahal dutenaren emaita gure diosesako obra onen laguntzeko. (...) Familiako buruzagiak egin ahalko du amoina hori bere etcheko guzientzat. Pobrek erran ditzatela, horren orde, bortz Gure Aita eta bortz Agur Maria. (...)
11. *Denier du culte* apezen paga establitua da gobernamentuak bertze orduz emaiten zuena kendurik, haren ordain, Zuzenezko zor bat da Aita Sainduaren eta Frantziako Apezpikuen arabera, fededun guziek pagatu behar dutena, ahalaren arabera; orok orotako, ez bakotchak bere herriko bakarrik. Lehen apezpei emaiten zuena herrietarat igortzen du orai gobernamentuak, urthean hunenbertze. Hura gutiago zerga du herriak pagatzeko; gutiago araberan bakhotchak. Apezpei kendua gobernamentuak herriari emaiten duenaz geroz, *Denier du Culte* horrentzat emaita ez da katolikoentzat karga berri bat. Da Elizari kendua Elizari bihurtzea.
12. Garizumako laugarren igandean, Jaun Erretorek predikalkitik berriz irakurtuko dute, hitzik gehiago gabe, gure Manamendua, *La Dépêche de Toulouse, Frontière du Sud-Ouest* eta *Argitzailea* deitu kazetan erosteaz eta

irakurtzeaz. (...) Huna zer dugun manatu eta manatzen: 1° *Dépêche de Toulouse, Frontière du Sud-Ouest* eta *Argitzailea* erostea, saltzea edo irakurtzea ohi dutenek bekatu mortala egiten dute, non ez duten zerbeit arrazoin handi; eta arrazoinak direlarik, geronek nahi dugu ikusi eia aski handiak diren, ala ez.

(François-Marie, Baionako apezpikua) *Eskualduna*, 23.02.1912

Gogorrak izanikan ere, Garizumaren baldintzak hein batean negoziatzen ziren botere zibil eta erlijiosoaren artean. 1782an, Haramboure, Lapurdiko Biltzarraren buruak herriei idatzi zien Garizumako manamenduei buruz. Hona Makeako artxiboetan agertzen den eskutitza :

« *A messieurs les maire abbé et jurats à Macaye*

Messieurs,

Si vous pensez que la cherté excessive de la morue et de la sardine comme celle des œufs et surtout du lait qui sera rare à cause de la disette des fourrages nécessitent dans votre paroisse la dispense du maigre pendant quatre jours de chaque semaine du carême, je vous prie de m'autoriser à la demander. Il est bien que sans consulter le peuple sur cet objet vous en confériez avec mr votre curé et quelques députés, afin que vous puissiez me donner votre réponse jeudy prochain à Bayonne, où j'attendray moi-même jusqu'au samedy pour recueillir les suffrages et agir en conséquence du vœu général.

J'ai l'honneur d'être avec une parfaite considération Messieurs votre très humblement obéissant serviteur, Haramboure Sindic. Sare, le 17 février 1782 »



Ezpeletako kaxkarotak 1932an (Hargain familiaren argazkia)

4. Basa / zibilizatua

Ihauteriak berekin dakartza ilunagoak edo ulertzeko zailago diren sinbolo batzuk. Lapurdiri mugatzeko, gehienetan maska edo kaxkarotekin batera ateratzen zen hartza eta bere erakuslea, jaun-andere esposak, eta batzuetan (Itsasun 1920 urteetan) kauterak eta "zanpantzarrak" ere. Pertsonaia horien jokoa galdu da, baina Pirinioetako gainerateko ihauteriei konparatuz pentsa daiteke hartza eta anderearen artean joko bat bazela: hartzak neska "ebasten" zukeela, gazteek hartzaren ihizia muntatzen, eta aberea behin harrapatu eta hiltzen zuketela, zibilizazioa-primaderak basa-neguairen gainean irabazten balu bezala¹⁵. Holako joko oso baten oroitzapenik ez da Lapurdin. Joko sinpleago batzuenaa haatik bai. Ezpeletan eta Ainhoan oroit dira hartza dantzazten zuela bere erakusleak, jendeen irri eginarazteko. Hartza oldartzen zitzaion erakusleari eta behazaleei - bereziki neskei - lotzen. Ezpeletan, bere burua karrikako saltegi baten mirailean ikusita, alegia izitu eta

¹⁵ Beha baita ere Pirinioetan hedatua den Hartz-kumeren kondaira.

miraila xehatu omen zuen behin. Uztaritze eta Arbona inguruan hartzari Bizar dantza eginarazten zioten, zeinetan hiltzen eta arrapizten zen: hor ere bada bizia eta herioa, eta sasoiaren arteko tentsioaren irudimen bat. Alduden ba omen zuten “Hartz dantza” bat, matelotaren airearekin, baina aspalditik ahantzia dena.



Kanbo beheko kaxkarotak hartzarekin dantzan, 1935 ing. (Poupel)



Hartza, erakuslea eta maskak Kanbon, 1950ean (Poupel)

Hartzaren erran-nahia iluna da. Bai eta masken eta kaxkaroten arteko oposizio hori. Ihauteriko tropa horien baitan bada tentsio bat, tirabira bat, basa eta heziaren artean, negua eta primaderaren artean. Batzuetan elkarrekin ibiltzen ziren, bertzeetan bereiz. Batzuetan gazte berak ziren ateratzen kaxkarotez herritik kanpo diru eske, eta masken jauntzi arruntekin herrian berean xingar eta arroltze eske. Hirietan ere bazen oposizio hori. Donibane Lohitzunen, 1841eko auzi batean aipu dituzte astearte ihauteko maskak, batzuk palto azpian biluzirik eta gorputza beltzez emokaturik, nesken iziarazteko. Neguko izpiritu ilunek eta primaderako argien arteko lehia bat jokoan balitz bezala. Basa eta zibilizatuaren arteko joko hori nabari da ihauteriz kabalekin egiten ziren hainbat jokotan: behi lasterrak (bereziki Hazparnen), oilasko jokoak Amotzen (Veyrin 1925), oilar jokoak Baztanen (haurren erregearen bereizteko jokoak). Gazteriaren buruaren izendatzeko molde “neutroa” bezala erabil zitezkeen joko horiek ere. Alabaina, basa eta heziaren arteko tentsio hori ez da euskal ihauterien berezitasun bat. Italiar

adibideetara itzultzeko, hona maska “basati” zenbait, bi eskualde desberdinetarik (Lombardia eta Sardinia) hartuak:



Le vecchie, atso-sorginak Bagolinon, 2013ko astelehe ihautez (X. Itzaina)



Mamoiadako Mamutone bat Nuoron (Sardinia), “udako ihauterian”, 2013
(X. Itzaina)



Mamutone bat ibilki (X. Itzaina)



Ottanako (Sardinia) maskak Nuoron, "udako ihauterian", 2013 (X. Itzaina)



Fonni-ko S'Urthu (hartza) eta Sos Buttùdos (beltzeria) haurrak gerizatzen Nuoron (Sardinia), 2013 (X. Itzaina)

4. Ezkonduak / ezkontzekoak

“Eztei ederrak Euskal Herrian egin ditugu ihauterian” (kantu xaharra)

Jakina denez, ihauteria ezteien sasoia zen, garizuma aitzin. Hazparnen 1946ko ihauteriz 22 ezkontza ospatu zituzten¹⁶. Sasoi horretan zituzten ere kargu berriak beren gain hartzen aitzineko urteko ezkonberriek. Itsasun, otsailaren 2an, Ganderailuz, haur, azinda eta etxeen geriza erritoez gain, egun hartan ziren izendatzen klaberak (*marguilliers*) aitzineko urteko ezkonduen artean. Klaberaren esku zen elizkizunetan

¹⁶ *Herria*, 1946.I.17

honenbeste funtzio betetzea: eskea, elizaren prestatzea, apezaren laguntzea. Hiru klaber baziren, bakoitza aldare bati eratzikia (Murtuts, San Josep, Ama Birjina). Behar zuten ezkonduak etxeko jaun edo etxekandere izan. Gehienetan, klaberek ordaina pagatzen zuten elizako lan horien betetzeko. 1765eko herriko estatutoetan jada arautua zen usaia horrek 1970 arte iraun zuen.

Ezkontzearekin, mutikoak eta neskak gazteriaren adin klasetik ateratzen ziren, eta gizartean maila berri bat erdiesten. Ezkontzea, eta ahalaz “ontsa” ezkontzea arrangura nagusi bat zen gazteriarentzat. Sinbolo eta erritoen bidez, gazteriak ezkontzen “merkatuaren” gainean zeuzkan dretxoak azpimarratzen zituen ihauteri garaian. Masken tropetan, libertimenduetan, maskaradetan, beti jaun-andere esposak agertzen ziren, hartzarekin batera. Gaude ihauteriko tropa horiek eztei-talde batzuen eskarniak ez ote ziren. Europako hainbat eskualdetan, garai batez eztei anitzetan, Xiberoko maskaradetan egiten den barrikadaren gisako mugak eta trabak ezartzen ziren bidean trebes, sustut ezkonduetarik bat kanpotiarra zelarik. Gazteriari zerbaixka ordainduz geroz libratzen zen pasaia. Ihauterietan, eta oroz gainetik galarrots eta toberetan, ezteiez trufatuz, oraindik ezkontzekoak ziren mutikoek jakinarazten zuten beren hitza bazutela errateko etxeen arteko lotura berriei buruz. Sustut eztei horiek orduko ordena moralaren aurka baldin bazihoazen: xahar bat ezkontzen edo arraezkontzen zelarik gazte batekin, neska edo mutiko bat bere adin klaseari “hartuz”, senar-emazteak joka ari zirelarik, elkar tronpatu zutelarik, elkar utzi, eta abar luze bat. Kari horietara egiten ziren gauazko toberak ihauteriz iragaten ahal ziren, ikusiz anitz eztei orduan iragaten zirela, baina garai hartarik kanpo ere egiten ziren franko. Ezpeletako kantonamenduan 1800 eta 1921 artean auziperatuak izan ziren 56 toberetarik 17 urtarril-martxo artean iragan ziren, 14 apiriletik ekainera, 11 uztail-buruilean eta 14 urri eta abendu artean, urtean zehar aski orekatuak beraz (Itçaina 2012a).

Italian, Piemonte eskualdean dagoen Rocca Grimalda herrian, *La Lachera* deitu maskarada bat ateratzen da ihauteri oroz. Maskaradaren joko

garrantzitsuenetarik bat da andere esposaren dantza, non dantzariak andere xuria gerizatzen duten bahitu nahi duten bertze pertsonaia batzuegandik. Bestaren bi irakurketa transmititu dira gaur arte Rocca Grimaldan, bata historiko-mitikoa eta bertzea magiko-erritualista. Lehen irakurketarentzat, maskaradak oroitarazten du garai batez tokiko nobleak herriko neska gazteengan zeukan eskubidea: *Jus Primae Noctis*, edo lehen gauaren gozamina, frantsesak *droit de cuissage* deritzona. Herria jaunari iharduki omen zitzaion, eta jatzartze horren oroitzapena izan liteke gaurko maskarada. Bigarren irakurketarentzat aldiz, Rocca-ko maskaradan bertze Europako hainbat ihauterietan agertzen diren sinboloak dira agerian ezartzen, eta bereziki neguaren eta primaderaren arteko lehia eta emazteen emankortasunaren indartzeko erritoak.



Jaun-andere esposak beren zaindareekin Rocca Grimaldan, La Lachera, 2013

(X. Itzaina)



Andere esposa bi lacchè-rekin dantzak, Rocca Grimalda, La Lachera 2013
(X. Itzaina)

5. Boterea zirikatu / indartu

Historian zehar, ihaute garaia beti izan da zirika eta kritika garaia. Baionako artxiboan, masken debekuak agertzen dira franko usu Erdi Aroan eta Aro Modernoan, bai Elizaren, bai botere zibilaren partetik. 1577ko otsailaren 4an, hiri agindu batek maskak debekatu zituen egunaz berdin gauaz ihauterietan. Maskez gain bertze tresnekin ibiltzen ziren tropa guziak ziren debekatuak: « *avec trompettes, tambourins de guerre et autres instruments musicaux (sic)*» aro txarrarengatik eta ikusiz etsaia sar zitekeela hirian maskaturik (Sacx 1984). 1584an, maskaradak debekatzen zituzten 1314eko aginduak arraberrituz (Moreau 2003). 1591an, Jacques de Maury Baionako apezpikuak ihauteriak kondenatzen zituen ikusiz maska zenbait apezek beztitzen zirela Zan Pantzarren auziaren kariatara (Moreau 2003). 1587an, Baionako apezpikuak kondenatzen zuen gaur egungo Zanpantzarraren egite handia duen usaia bat:

“Ceux lesquels le premier jour de Carême estiont allé par la ville avec des flambeaux, portant ung homme armé pour l’enterrer avec accoustement de deuilh et de prestres ez bonnetz carrez et contre ceulx qui avoient dict cella avoit esté accoustumé d’estre faict (...)” (Sacx 1985; Truffaut 2005: 185)

1665eko otsailaren 7an, Baionako juradoek salatzen zituzten karriketan barna egiten ziren astolasterrak, atabalari eta bertsulariekin:

« Lesditz jurats ayant été advertis qu’il y a des habitans qui s’atroupent tan de nuits que de jour et font des courses par la ville avec des tambours s’arrestans par les quantons, chantans des vers diffamatoires quy choquent l’honneur de diverses familles ; et on a reçu plainte de ce que lesdits coureurs se jactem de faire courir la beste qu’ilz appellent asne ou anesse, ce qui est (?) aux ordonnances quy ont été publiées portant deffences de refaire, et particulièrement en ce temps de carnaval

ausquels abus et désordres desirants les ditz (suie cemdian) affin que l'honneur des familles ny soit point (?) et pour qu'il ny arrive aucun cas irréparable ont délibérer d'y porter tous les remèdes nécessaires. A ces causes après que le (?) dela ville (?); il est inhibition et deffences a toute personne de quelle conditions et qualité qu'il soit de satrouper ny chanter aucun (?) diffamatoire soit par chansons ou autrement contre l'honneur de particuliers ny de faire aucune course par ville masqué ou autrement avec tambour en ce temps de carnaval souz prétexte de faire courir lasne et annesses ny autre beste a peyne de cinc cens livres et de prison. (...)» (Conseil extraordinaire du 7 février 1665, Archives communales, Bayonne, FF.524, feuillet 13)



Zan Pantzar Baionako karriketan barna (X. Itzaina)

Frantzia eta Europako bertze hainbat tokitan, ihauteria, testuinguru historiko berezi batzuetan, oldartze eta liskar garaia bihur zitekeen. Le Roy Ladurie historialariak erakutsi du Romans, Dauphiné-ko hirian, nola

1580ko ihauteria hiriko klase sozial eta alderdi desberdinen arteko lehia odoltsuaren antzoki bilakatu zen (Le Roy Ladurie 1979). *Fronde* mugimenduaren garaian, 1651n, Bordelen ihauteriz Mazarin kardinalaren buru moztea antzeztu zuten. Donibane Lohitzunen 1726ko otsailean emazteek protesta bat eraman zuten *gabelle* zergaren kontra, protesta dantza bihurtu zen eta hiria kurritu zuten “*en forme de mascarade*” (Truffaut 2005: 185). Ihauterietarik kanpo ere, ihauteriaren “teknika” desbideratzen zuten batzuetan herritarrek mugimendu sozial baten aldera. Ariège-n XIX. mendean “Andereñoen gerla” (“*la guerre des Demoiselles*”) izenarekin ezagutua den mugimenduan, soldadoak eta jandarmak erasotzen zituzten laborari eta artzainak maskatuak ziren eta emaztez beztituak, ihauteriaren sinbolika politikoki desbideratuz (Soulet 2004). XIX. mende hastapenean Kanbon, Makean eta bertze hainbat lapurtar herritan izan ziren halaber gizon maskatu eta emaztez bezi jatzartze bortitzak, batez ere zerga berri eta tabakoaren lege berriaren aurka. Gisa bereko oroitzapenak zituzten Itsasun 1906ko Elizaren imitatorioen aurkako protestaren lekuko izan zirenek.

Arrunt bertzaldera ere erabil zitekeen ihauteriaren sinbolika, eta bereziki su garbitzailearena. XV. mende hondarrean Florentzian xutik ezarri zuen diktadura fundamentalistaren indartzeko, Girolamo Savoranola fraide dominikanoak ihauteriak debekatu zituen. Eta 1497ko otsailaren bian, astearte ihautez hiritarrei beren liburu, joia, mirail, arropa eder eta jostailuak errearazi zizkieten, denak “*falo delle vanità*” (harrokerien sua) famatuan botatuz. Su purifikatzailea, kasu honetan, ez zen Pantzarten bekatuen pairatzeko egina baina bai hiriaren arinkeria eta dekadentziaren salatzeke. Savonarolen aginteak ez zuen luzaz iraun, eta 1498ko maiatzaren 23an hura bera zuten urkatu eta erre Piazza della Signorian.

Gutarteraino jin zaizkigun ihauterietako jokoetarik batek zirika funtzio horren oroitzapena darama hain zuzen, Zan Pantzarren jujamendua. Lapurdin hasteko Hautez iragaten zen, eta zirika eta satira memento bat zen. Baionan Pantzart jujatu, erre eta Errobira botatzen zuten. Bai

Baiona, bai Donibane Garazin, bai Uztaritze edo Kanbon, Zan Pantzarren erretzea gehienetan kaskoinezko kantu batek laguntzen zuen:

*Adiou praube, praube, praube,
Adiou praube Carnaval
Carnaval, qu'era un brave omi
Me qu'era un fotut gormand
S'a minjat totas las polas
N'a deishat que lo hasan
(Truffaut 2005: 272)*



“Il rogo della vecchia”: atsoaren erretzea Benedellon (Italia),
2013ko Garizuma-erdiz (X. Itzaina)

Nahiz eta gehienetan auzapezek josteta horiek onartzen zituzten, batzuetan hein bat eskupean atxiki nahi zituztela oroitarazten zuten. Hona adibidez zer zioen Bidarteko auzapezaren agindu batek, 1892ko urtarrilaren 28an:

“1. Toute personne qui pendant le temps du Carnaval a l'intention de se montrer masquée ou déguisée, dans les lieux publics, sur la place ou les chemins de la commune, devra donner son nom à la mairie. Aucune personne ne pourra prendre des déguisements qui seraient de nature à troubler l'ordre public, ni porter sans titre un uniforme militaire

2. En tout temps les personnes ayant l'intention d'établir un bal ou des danses sur la voie publique devront en faire la déclaration à la mairie. L'autorité municipale fixera l'emplacement des musiciens et des danseurs.

Maire: B. Boudet” (Bidarteko herri artxiboa)

Halaber Donibane Lohitzunen 1867ko otsailaren 1ean, masken erabilpena arautzen zuen auzapezaren agindua:

Aucun masque « ne pourra porter ni armes ni bâton (...) ni porter aucun insigne ni costume ecclésiastique ou religieux appartenant aux ministres du culte légalement reconnus par l'Etat comme un fonctionnaire public »

Art. 3 : « à l'occasion des divertissements de Carnaval, il est défendu à toute personne masquée ou travestie de se permettre aucune insulte envers qui que ce soit et surtout avec les femmes : comme aussi de s'introduire dans aucun domicile, magasin ou boutique sans le consentement et l'aveu des propriétaires ou locataires » (Donibane Lohitzuneko herri artxiboa)

Masken debekua oraindik azkarrago zen gerla denboran, Uztaritzen bezala, 1915eko otsailaren 11n:

“1. il est défendu aux habitants de la commune de se masquer ou déguiser d'une façon quelconque pendant les journées de Carnaval de l'année 1915 ainsi que le mercredi 17 février

2. il est aussi défendu aux groupes de masques ou déguisés sous un travestissement quelconque venant de l'extérieur, de circuler dans la commune pendant les mêmes journées

3 la même défense est faite aux isolés (...)” (Uztaritzeko herri artxiboa)

1816ko ekainaren 18an, Mauleko suprefetak Mithikileko auzapezari idatziz ion herri hartan egin behar ziren maskaraden debekatzeko. Debekuak bi arrazoi zeuzkan: bata, igande hartan zela Luis XVI. erregearen herioaren oroitzapena markatzen, eta bertzalde herriko gazteria jada zatikatua zela, eta maskaradek giroa minduko zutela:

« Je suis informé, Monsieur, que les jeunes gens de votre commune se disposent à faire des mascarades pendant ce carnaval, et qu'elle doit avoir lieu pour la première fois dimanche prochain, jour de deuil pour tous les Français, jour anniversaire de la mort tragique du Roi-Martyr Louis XVI, assassiné par un (cannibale : barré) homme que la France bannit de son sein à si juste titre. Ce seul motif suffit pour vous engager à deffendre particulièrement ce jour où nous devons une larme à l'expiation de ce crime horrible. Vous l'empêcherez sous votre propre responsabilité. Un autre motif milite également à ce que cette mascarade n'aye pas lieu les autres jours du Carnaval, c'est la désunion qui existe entre les jeunes gens eux-mêmes dans votre commune. Vous devez veiller au bon ordre, vous devez par une police exacte et sévère empêcher toute occasion de trouble et de rixe, et si cette désunion existe réellement, vous devez en vous acquittant des obligations de la place que vous occupez deffendre toute mascarade. La prévoyance d'un fonctionnaire public est nécessaire lorsqu'il s'agit de prescrire des délits par une mesure de police. J'ai l'honneur, etc. »
(Lettre du Sous-préfet de Mauléon au maire de Moncayolle 18 janvier 1816, archives départementales 64, 2Z 52)

Entzun ditugun lekukotasun gehienek diote Zan Pantzarren auzia, Haustez, giro bitxi batean iragaten zela, erdi alai, erdi triste. Ezpeletan, ez zen egun hartan kaxkaroten musika ederrik entzuten, baizik eta kleron eta atabala arramantza bitxi eta erdoil bat. Kanboko behereko plazan haatik, gorago erran bezala, kaxkarotak ateratzen ziren egun hartan, hautsak hartzen zituzten, erretorearekin askaltzen ziren, eta eske ibiltzen. Arratsaldean egiten zen Zan Pantzarren auzia Behereko plazan, zinezko maskarada bat osatuz: bi bertsulari, juje eta abokatu ofizioa betetzeko¹⁷, kaxkarotak beren banderekin (1937an, frantsesa eta ikurriña), "clown" edo "polichinelle" gisako pertsonaia bat, xuriz bezi eta asto baten gainean hupatua, dolua (gizonak emazte xaharrez bezi, alegia

¹⁷ Luzaz arizan ziren Erguy kanboarra eta, lehenago, Marie Hargain, kanboar emazte bertsularia.

negarrez), apeza. Zan Pantzar jukatzen zuten bi bertsulariek, apez faltsuak azken sakramenduak ematen pizontzi batean zegoen ur “benedikatua” erabiliz, tiroz garbitzen zuten eta erretzen. Pablo Tillac-en margoei esker baditugu Kanbo Behereko besta horren irudi franko 1920-1930 urteetan¹⁸. Hazparne-Hazketan, Zan Pantzarren jujamendua uda partera pasatu zuten XX. mendean kartierreko besten karietara - Senperen eta Urruñan bezala -, “San Pantaleon” egunean. Egun hartan, Zan Pantzarren jujamenduan zapatainen laidoak zituzten plazaratzen. Donibane Garazin, Zan Pantzarren jujamenduan nahasten ziren euskara, frantsesa, kaskoina eta latina ere (Harruguet 1936).

Zer heinetaraino plazaratzen zen ihauteriz boterearen kritika bat? Ihauteriz hitza libro zen garai mugatu batentzat, eta ondotik betiko hierarkiek zuten gaina hartzen. Bolikostako Agni d’Idenie leinuan, “errege preso”-ren erritua ospatzen zuten. Erregea hiltzen zelarik, esklabo bat ezartzen zuten erregearen ordain, aitzindari berria jin arte. Botereak binperraz ezarriak ziren transizio garaian. Baina errege berria sartu orduko esklaboa hiltzen zuten (Perrot 1967). Frantzian, Estadoak ihauteri eta toberen aldera zuen jarrera ere aldakorra izan da, eta erakusten du estatua zein emeki sartu den hainbertze “disidentzia” (Soulet 2004) oraindik ezagutzen zituzten Pirinioetan. Toberei dagokienez, gauazko toberak fermuki kondenatzen zituen prefetura eta justiziak, oroz gainera Bigarren Inperiotik aitzina, tokiko jendeen “zibilizatze” indar batekin batera (Itçaina 2012a). Egun beteko tobera mustra edo kabalkadak onartuak ziren, alegiazko *sujet* bat ematen zitzaient ber. 1833ko agorrilean, Bidarraiko auzapezak Mauleko suprefetari idatzi zion galdegiteko ea bere herrian iragan beharrak ziren astolasterrak baimendu behar ote zituen. Suprefetak berak ikus zezan ihardetsi zion. Beti Bidarrain, auzapezak 1862an suprefetari idatzi zion “*pastorale bucolique*” innoxent bat zela iraganen erranez, herriko deliberoetan “astolasterrak” bezala ekarria zelarik besta hori. Aldiz,

¹⁸ Ikus Euskal erakustokiko margo bilduma : <http://www.musee-basque.com/fr/collections-en-ligne>

1835an, Lakarran, suprefetak debekatu zituen gauazko toberak, baina gazteriak deliberatu zuen orduan, auzapezaren baimenarekin, egunazko kabalkada handi baten moldatzea. Auzapeza berriz ere bitartekari lanetan arizan zen, suprefetaren baimenaren erdiesteko.

Ihauteriak aldiz, mugatuak eta arautuak ziren josteta bezala, gehienetan onartuak ziren, salbu giro sozial eta politiko nahasi batean iragaten baldin baziren. 1828an, Mauleko suprefetak prefetari idatzi zion deitoratuz Zalgizeko auzapezak maskaradak debekatu izatea, apimarratuz gazteriaren ahusagailu onestak zirela maskaradak, nahiz eta, lekuko beraren arabera, orduan harmak, pistolak eta makilak erabiltzen zituzten goizeko barrikadetan. Gertatzen ahal zena zen haatik gazteriak ihauterietako giroa erabiltzea beren kontuen xuritzeko. Eta tokiko gizartearen barne urraduren agertzeko ere. Donibane Garazin 1832ko ihauterietan (Reicher 1832), hastapenean alargun baten kontrako galarrots xoilak zirenak, izariz kanpo joan ziren. Alargun hori zapataina eta biarnesa izanki, Donibaneko gazteria jatzarri zitzaaien zapatainei, dantzaldietako sartzea debekatuz. Auzapezak dantzaldia debekatu zuen, eta gazteek ikaragarriko galarrotsak muntatu zituzten zapatainen aurka. Izan ziren joka partidak eta kolpatuak. Kasu horretan, gazteriaren asaldatzea ez zen baitezpada tokiko agintariei burutua baizik eta gizarte talde berezi baten kontra. Ohargarri da bertzalde, bai Donibane Garaziko, bai Donapauleko artxiboen arabera, ihauteri garaian, bi hiri horietako gizarte klase bakoitzak bazituela bere dantzaldi bereziak¹⁹.

III. Errepublika garaian, xuri-gorrien arteko lehiak ihauteri eta kabalkadak ere hunki zituen. Errepublikarrek baloratzen zituzten, hain zuzen apezak aurka zituztelakotz. Gorrien prentsan (*Le Réveil basque, le Pays Basque-Euskal Herria*,...) aurki daitezke ihaute, libertimendu eta tobera mustren aipamen franko, *Eskualduna*-n aldiz guti, baina hor ere nola gerta. Bidarrian 1909ko tobera mustrak aipatu zituzten, haatik 1923ko ihauteri kari *Euskalduna*-ren berriketariak zioen ez zuela aipatuko josteta deshonestik. Egun hartan han gertatu zen ingeles

¹⁹“*Depuis le moment que la ville a pris possession de la dite salle, il y a eu chaque Carnaval des bals de Société de diverses classes chaque fois que le Maire l’a permis*” (Donibane Garaziko herri artxiboa, 1832).

behazale bati esker (P. S. Ormond) badugu Bidarraiko kabalkada horren berri.



Satira politikoa. Viareggio-ko ihauterietako karro bat (Toscana) 2012an (X. Itzaina)

6. Ohidurari jarraiki / uko egin / aldatu

Ihauteriak, beste ohidura guziak bezala, beti aldatuz joan dira historian zehar. Izan dira etenaldiak eta arrapizteak. J.-M. Guilcherek erakutsi du Xiberoko maskaradek zer bilakaera ukan zuten. Beren urrezko aroa 1870-1914 artean ukan zuten maskaradek, armadatik jin dantza maisuek “*points de principe*”-en teknika berria loratu zutelarik Barkoxetik Santa Graziraino. Lehen mundu gerlan, milako bat dantzari xiberutar hil zirela diote. Haustura larria izan zela, hori segur. Baina bi gerlen artean berriz lotu ziren maskaradei eta pastoralei. Ahultze zerbait senti zen halere: Gamere-Zihigak bere azken maskaradak eman zituen 1914an, Zalgizek 1921ean, Larrañek 1927 ing., Etxebarrek 1929an, Ozazek 1930ean, Ligik

1933an. Haatik gero eta herri gehiagok beren aitzindariak igortzen zituzten kanpora dantzatzera, maskaradetatik bereiz.

II. mundu gerla ondoan (Guilcher, 1984: 547), hastapenean maskaraden arra-abiatze azkarra izan zen: 1946an Barkoxen eta Hauzen, 1947an Atharratzen, Onize Gainen, Sohütan; 1949an Urdinarben; 1951n Altzürükün; 1952an Altzain eta Sohütan. Baina franko laster mugimendua epelduz joan zen. Aldi honetan arrazoiak ez ziren baitezpada gerlako hilak, baina gizarte aldaketa eta gazteen joatea. Bertzalde, kirolak, eta errugbiak bereziki, dantzaren lekua hartzen ari zuen gazteriaren desafio estakuru eta ahusagailu bezala. Dantzari hoberenen bereizte prozesu zorrotza ere ahultzear zoan. Ohidurak, haatik, beti segitzen zuen aitzina, bere nekeziekin : Atharratzen 1953an, 1947eko maskaradako dantzari zenbait berriz beztiarazi zituzten, eta laguntza galdegin auzo herrietan taldearen osatzeko (Irurin, Zünharen, Atherein, Altzain). Maskarada kasik kantonamendukoa bilakatzen zen. 1959 eta 1967 artean, ez zen maskaradarik izan. Arra-abiatze bat izan zen 1967-1975 artean: Altzürükün, Sohütan, Altzain, Urdinärben. Soka ez zen beraz sekula moztu, eta ereduaren transmisio zuzenaren baldintzak oraindik bilduak ziren.

Baxenabarren halaber ihauterietako maska, eske, libertimendu eta kabalkadak emeki-emeki ttipituz joan ziren, 1970 urteetako berpiztea aitzin. Garaziko herri zenbaitetan begiratu zuten urteroko kabalkadaren usaia, batzuetan udara pasatuz. Luzaiden XX. mende hastapenean ihauterietako libertimendua Bazkoko “Bolanten eguna” bihurtu zen, eta dantzaren usaiak bizi-bizia segitu zuen aitzina (Sagaseta 2011). Tobera-mustra eta libertimenduek ukan zuten bertzalde beren bilakaera berezia Baxenabarren (Aurnague et al. 1995; Luku 2014).

Lapurdi izan zen gizarte aldaketak gehienik hunki zuen lurraldea. II. mundu gerla ondoan xuhurtuz joan ziren ihauterietako kaxkarot taldeak²⁰. Uztaritzen usaiak eten gabe iraun zuen, antolaketa mailan aldaketa bat izan bazen ere. 1967 artino *Labourdins* parropiari lotua zen elkarteak zuen kaxkaroten ardura, eta ordutik aitzina Izartxo dantza taldeak zuen

²⁰ Ikus (Truffaut 2011) prozesu horren xehetasunentzat, herriz-herri ekarriak.

usaia bere gain hartu, ohiduraren edukiari ahal bezain berme jarraikiz. Ezpeletan ere beti segitu zuten, baina kaxkaroten taldeak funtsezko aldaketak ezagutu zituen. Hazparnen izan zen etenaldi bat 1960 urte erditsuetarik aitzina, baina kaxkarotak berriz abiatu ziren 1979an, beren dantza piko bereziekin. Ainhoan, Ahurtin eta Milafrangan kaxkaroten usaia oraindik indartsua zen gerla biharamunean, hor ere izan zen ahultze eta arrabiatze. Kanbon aldiz, 1939an ziren azken aldikotz atera Behereko plazako kaxkarotak. Gerlatik landa aitzina segitu zuten Zan Pantzarraren bestaren ospatzen, gainekeo plazan. 1950 urteetan oraindik ateratzen ziren maskak beren hartzarekin, baina kaxkarotik gabe. Itsasun, auzapezak maskak debekatu zituen 1947an astearte-ihautez gizon maskatu batzuek hilketa bat egin zutelakotz Gibelarteko etxe batean²¹. Itsasuarrak Zuraidera joan ziren eske. Masken itzuliak berriz hasi ziren Itsasun ondoko urteetan, hartza, jaun-andere eta maskekin, eta noiz behinka dantzariekin.



Kanbo Behereko plazako kaxkarotak 1913an, xirula-atabalarekin (R. Poupel)

²¹ Ikus Trukiaeneko krimaz ezarriak izan ziren kantuak (Oxtikenea 2014).

1980 urteetan berriz hasi ziren eskuin eta ezker kaxkarot taldeak ateratzen (Truffaut, 2005). Ihauteriaren aldeko kar berri bat hedatu zen, bertze ohidura batzuk hunkitu ez zituenak. Sentsua aldatu zen. Ez zait iduritzen gaur egun ihauteria lehenagoko beldurrei ihardesteko ospatzen dela : negua, hotza, gosetea, mundu basatia, garizuma, ezkontza. Denik ere, beldur garaikideak dira gaur plazaratzen: herri nortasunaren bilakaera, euskararen geroa, arazo politiko eta sozialak baina, guti edo aski, aitzinekoek utzi soinu, jauntzi eta jauzi berekin. Erran-nahien malgutasun horrek ditu, hain segur, ihauteriak bezalako bestak agian luzaz iraunaraziko.



Sa Filonzana (irulea) biziaren haria iruten ari. Ottanako maska, Sardinia, 2013

(X. Itzaina)

Iturri zenbait

▣▣ Ihauteriak European

Agulhon M. (1979), *La république au village. Les populations du Var de la Révolution à la II République*, Paris, Seuil.

Bercé Y.-M. (1976), *Fête et révolte. Des mentalités populaires du XVIe au XVIIIe siècle*, Paris, Hachette.

Biolchini G., Borghi G. P. (sd), *Il Carnevale di Benedello*, Reggio Emilia: Associazione culturale Il Treppo.

Cappelletto F. (1995), *Il Carnevale. Organizzazione sociale e pratiche cerimoniali*, Brescia: Grafo.

Caro Baroja J. (1979), *Le Carnaval*, Paris, Gallimard.

Desplat C. (1982), Christian. *Charivaris en Gascogne. La 'morale des peuples' du XVIe au XXe siècle*, Paris, Berger-Levrault.

Fabre D. (2000), *Carnaval ou la fête à l'envers*, Paris, Gallimard.

Giarelli L. (ed.) (2012), *Carnevali e folclore delle Alpi. Riti, suoni e tradizioni popolari delle vallate europee*, Lontano Verde, ISTA.

Itçaina X. (2013), "Kapeluak dantzán Bagolinoko ihauterietan", *Dantzán.com*, 2013.II.24, <http://www.dantzán.com/albisteak/kapeluak-dantzán-bagolinoko-ihauterietan>.

Le Roy Ladurie E. (1979), *Le carnaval de Romans*, Paris, Gallimard.

Perrot C.-H. (1967), "Be di Murua: un rituel d'inversion sociale dans le royaume agni de l'Indénié", *Cahiers d'études africaines*, 7(27): 434-443.

Ruiu F. S. (2009), *Maschere e carnevale in provincia di Nuoro*, Nuoro, Provincia di Nuoro.

Soulet J.-F. (2004), *Les Pyrénées au XIXe siècle. L'éveil d'une société civile*, Bordeaux, Sud-ouest.

Sordi I. (1976), "Il Carnevale di Bagolino", in R. Leydi, B. Pianta (a cura di), *Mondo popolare in Lombardia. Brescia e il suo territorio*, vol. 2, Milano, Silvana, p. 25-43.

▣▣ **Ihauteriak Ipar Euskal Herrian**

Alford V., Foch A. (trad.) (2004), *Fêtes pyrénéennes*, Portet-sur-Garonne: Loubatières (1. edizioa : *Pyrenean festivals*, London: Chatto & Windus, Toronto: Macmillan, 1937).

Aurnague M. (1993), "Faustin Bentaberriren eragina Baxe Nafarroako musika eta dantzetan : aparteko kasu bat", *Txistulari*, 156, 1993, 8-12 or.

Aurnague M., Etchehandy M., Etcheverry-Bordarrampe A., Lucu A., Olhagaray D. (1995), *Dantzaz ele. Autour de la danse en Basse-Navarre. En torno a la danza en Baja-Navarra*, Donibane Garazi: Garaztarrak 40 urte.

Badé J. (1840), "Le Carnaval chez les Basques de la Soule", *L'Observateur des Pyrénées*, 13 mars 1840 n°6.

Bordes C. (1989 [1899]), "La musique populaire des Basques : 54 chansons, noëls, mélodies, airs nationaux, avec musique", dans *La tradition au Pays Basque (Congrès de Saint-Jean-de-Luz, 1897)*, Donostia, Bayonne: Elkar, , 297-354 or.

Chaho A. (1855), *Biarritz entre les Pyrénées et l'Océan*, Bayonne, Andreossy.

Constantin A. (1927), "Les danses spéciales du pays de Soule", *Bulletin du Musée basque*, 4. urtea, 1-2 zk., 13-20 or.

Cuzacq R. (1942), *La Pamperruque, danse bayonnaise*, Bayonne: Chez l'auteur, 1942.

Dassance L. (1927), "Les sauts basques et les vieilles danses labourdines", *Bulletin du Musée Basque*, 4. urtea, 1-2 zk., 21-30 or.

Dicharry E. (2012), *Du rite au rire. Le discours des mascarades au Pays Basque*, Paris, L'Harmattan.

Duvigneau-Légasse M. (1993), *Le tribunal de baillage du Labourd, ses jugements civils et criminels de 1680 à 1790*, Thèse doctorat d'études basques, Bordeaux III.

Duvoisin C. (1861), *Vie de Mgr Daguerre*, Bayonne, Lamaignière.

Etchecopar-Etchart H. (2001), *Théâtres basques. Une histoire du théâtre populaire en marche*, Bayonne, Gatuzain.

Fdez. De Larrinoa K. (1997), *Mujer, ritual y fiesta. Género, antropología y teatro de carnaval en el valle de Soule*, Pamplona, Pamiela.

Fdez. De Larrinoa K. (coord.) (1998), *Fronteras y puentes culturales. Danza tradicional y identidad social*, Pamplona, Pamiela.

Fourquet F. (1990), "La mascarade d'Ordarp", *Bulletin du Musée Basque*, 129 zk..

Frank R. (1989), « Singing duels and social solidarity : the case of the Basque charivari », in W. Douglass (ed.), *Essays in Basque social anthropology and history*, Reno: Basque programme, occasional papers series, 4, 43-80 or.

Gallop R. (1930), *A book of the Basques*, London: Macmillan & Co..

Goyhenetche J. (1996), "Institutions, société et noblesse en Pays basque", *Lapurdum*, n°1, octobre.

Guilcher J.-M. (1984), *La tradition de danse en Béarn et Pays basque français*, Paris: Maison des Sciences de l'Homme.

Harruguet S. (1927), "La danse en Basse-Navarre", *Bulletin du Musée Basque*, 4. urtea, 1-2 zk., 26-36 or.

Harruguet S. (1936), *Ihautiri solas. Oraisons funèbres de Carnaval*, Porché.

Hérelle G. (1925), *Le théâtre comique basque*, Paris: Champion, 1925.

Inchauspé V. (1998), "La danza tradicional en el País Vasco continental", in Kepa Fdez. De Larrinoa (coord.), *Invitación al estudio de la danza tradicional en el País vasco*, Gasteiz: Eusko jaurlaritza Kultura saila, 441-446 or.

Itçaina X. (2004), « Temporalités rituelles et changement social. La circulation du sens dans le calendrier festif d'un village basque », in R. Jimeno Aranguren, J. I. Homobono

Martínez (eds. Lits.), *Fiestas, rituales e identidades, Zainak*, 26, Donostia, Eusko Ikaskuntza, 315-336 or.

Itçaina X. (2009), "Ohidura dantzatuak eta Ipar Euskal Herriko gizartea : ikerlarien uzta" in E. X. Dueñas (ed.), *Jokoak, kirolak eta folkore-ikerketak. Juegos, Deportes e investigación folklórica, Jornadas Basauri 2008, Lankidetzan*, 51, Donostia, Eusko-Ikaskuntza, 323-338 or.

Itçaina X. (2012a), « Désordre public et ordre social. Charivari et politique en Labourd intérieur (XIX-XXe siècles) » in Le Gall L., M. Offerlé, F. Ploux (dir.), *La politique sans en avoir l'air. Aspects de la politique informelle*, Rennes, Presses universitaires de Rennes, p. 189-208.

Itçaina X. (2012b), "Lapurdiko ihauteriak" eta "Nafarroa Behereko ihauteriak", *Auñamendi Entziklopedia. Fondo Bernardo Estornés Lasa*
<http://www.euskomedia.org/aunamendi/>

Itçaina X. (2012c), "Baigurako bolantak. Tobera mustrak eta ohidura dantzatuak Irisarrin (I-II)", *Bulletin du Musée Basque*, n°179, 65-88 or., 2012 eta n°180, 2013, p. 73-86 or.

Laburu (1981), *La danse basque*, Bayonne: Lauburu, 1981.

Lekumberri T. (1983), *Etude sur les toberak ou parades charivariques*, Mémoire de licence en ethnologie, Université de Bordeaux II, 1983.

Lougarot N. (2009), *Bohémiens et mascarades. De l'influence des tziganes sur les traditions populaires du Pays Basque et d'ailleurs*, Bayonne: Gatuzain, 2009.

Luku A. (2014), *Libertitzeaz*, Iruña, Pamiela.

Michel F. (1857), *Le Pays Basque, sa population, sa langue, ses moeurs, sa littérature et sa musique*, Paris: Firmin Didot, Londres: Williams & Norgate, 1857.

Moreau R. (1981), *L'âme basque. Esquisse historique*, Ulysse.

Oxtikenea (2014), *Itsasu Olhako kantu kaierak*, Senpere: Oxtikenea elkartea

Peillen T. Et alii. (1999), *Europar herri antzertia. Teatro popular europeo. Théâtre populaire européen*, Oihenart, cuadernos de lengua y literatura, 16 zk., Donostia: Eusko-Ikaskuntza.

Poueigh J. (2003) "De la musique chez les Basques. Leurs chants et leurs danses populaires", in *VIII Congrès d'Etudes basques. Eusko Ikaskuntzaren VIII. Kongresua, VIII Congreso de Estudios Vascos (8. 1954, Baiona, Uztaritze)*, Donostia: Eusko-Ikaskuntza, 35-43 or.

Sacx M. (1984), « Récréations bayonnaises. Jeux, divertissements et plaisirs », *Bulletin de la Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne*, n°140.

Sagaseta M.-A.(2011), *Luzaideko dantzak. Danzas de Valcarlos*, Bilbo: Gara, (2. ed.).

Soulet J.-F. (2004 [1987]), *Les Pyrénées au XIXe siècle. L'éveil d'une société civile*, Bordeaux: Editions Sud-Ouest.

Truffaut T. (2005), *Joaldun et kaxkarot. Des carnivals en Pays Basque*, Donostia: Elkarlanean.

Truffaut T. (2011), *Vers un inventaire des traditions carnavalesques et hivernales dans la province du Labourd*, Barandiaran beka.

Urbeltz J. A. (1994), *Bailar el caos. La danza de la osa y el soldado cojo*, Iruña: Pamiela, Ikerfolk, 1994.

Urkizu P. (1998), *Zuberoko irri teatroa. Recueil des farces charivariques basques*, Baigorri: Izpegi.

Veyrin P. (1975 [1942]), *Les Basques. Du Labourd, de Soule et de Basse-Navarre. Leur histoire et leurs traditions*, Paris: Arthaud, Bayonne: Musée Basque.

Veyrin P. (1925), "Oilachko jokoa: un divertissement basque", *Gure Herria*, 5(8), agorila: 469-479.

Zintzo-Garmendia B., Truffaut T. (1988), *Carnivals basques*, Portet-sur-Garonne: Loubatières.

Zulaika J. (1996), Joseba. *Del Cromañon al Carnaval. Los Vascos como museo antropológico*, Donostia: Erein.